



Mendaroko UDAL BULETINA

2025eko otsaila

(más abajo en castellano)



Aurkibidea

Mendarok Emakumearen Nazioarteko Eguna ospatuko du hainbat jarduerekin.....4

Mendaroko udalerrak hainbat ekitaldi antolatu ditu Emakumearen Nazioarteko Egunaren harira, martxoaren 8an ospatuko dena

PR moduan homologatutako Kilimon Traileko bi mendi ibilbideak erabiltzeko prest daude dagoeneko.....5-6

Mendaroko Udalak 19.872,81 euroko (BEZa barne) aurrekontua bideratu du proiektu hau gauzatzeko, eta Kilimon Traileko bi ibilbideak Ibilbide Labur (PR) bezala egokitzeko

Padel eta frontoiko erreserbak eta ordainketak Udaleko web orriaren bitartez egiteko sistema martxan jarri nahi du Udalak.....7-8

Funtzionatzeko modu hau martxan jarri aurretik Udalak beharrezko ikusi zuen bi instalazio hauen erabilera arautzeko ordenantza bat egitea

Mendarok harrera protokolo bat diseinatuko du gurera datozen bizilagun berrien integrazioa erraztu eta bizikidetzak hobetzeko.....9

Aurrerapauso garrantzitsua eman nahi du gure herrira bizitzera datozen bizilagun berrientzako harrera protokoloa diseinatuz eta martxan jarritz

Gym Berdea, osasuna eta trantsizio ekologikoa sustatzeko ekimen berritzailea.....10-11

Mendaron garatuko da, 2025eko otsailaren 11tik azaroaren 18ra, 8 hilabete iraungo du, saioak asteroko maiztasuna izango dute eta interesa duten guztiei osasun eta natura proiektu kolektibo batean parte hartzeko aukera eskainiko die

Txatxilipurdi elkarteak bideratuta Mendaroko aisialdi hezitzailea berpizteko helburua duen prozesua martxan jarri da.....12-13

Mendaron, herriko haur eta nerabeekin garatuko den aisialdi eskaintza eta herriko ekipamenduak kudeatu ditzakeen aisialdi elkarte edo eragile bat eratzeko prozesua garatzea da helburua

Mendaroko merkataritzari bultzada "Mendaron bizi! Mendaron erosi!" kanpainari esker.....14

Mendaroko Udalak "Mendaron bizi! Mendaron erosi!" kanpaina jarri du martxan, herriko merkataritza sustatzeko ekimena, 2025eko otsailaren 22tik martxoaren 16ra indarrean egongo dena

'Egin nirekin ere euskaraz!' kanpainari ekin dio UEMAk.....15

'Egin nirekin ere euskaraz!' kanpainari ekin dio UEMAk, beste herrialdeetatik etorri eta ostalaritzan eta merkataritzan lanean ari diren euskaldunak ikusarazteko



Mendarok Emakumearen Nazioarteko Eguna ospatuko du hainbat jarduerekin

Mendaroko udalerririk hainbat ekitaldi antolatu ditu Emakumearen Nazioarteko Egunaren harira, martxoaren 8an ospatuko dena

Martxoaren 6tik 9ra bitartean liburu aurkezpenak, antzerkia, solasaldiak eta haurrentzako ekitaldiak burutuko dira, historian zehar emakumeek izan duten borroka eta erresistentzia ikusgai jartzeko helburuarekin.

Egitaraua martxoaren 6an hasiko da, 19:00etan, Udaletxean, Kristina Berasainen "Sahara; herri bat erresistentzian" liburuaren aurkezpenarekin.

Martxoaren 7an, txikienek "Ginkana" batekin gozatu ahal izango dute, 17:00etan Udaletxeko atarian hasiko den ekitaldian. Jarduera hau 7 eta 12 urte bitarteko hurrei zuzenduta dago.

Martxoaren 8an, egun nagusian, 12:00etan, kontzentrazioa egingo da Udaletxearen aurrean emakumeen eskubideak aldarrikatzeko. Ondoren, 18:30ean, San Agustin Kultur Etxean, "Mi tercer acto" Txirene Produkzioak-en antzezlan eskainiko da gaztelaniaz eta sarrera doan izango da.

Jarduerei amaiera emateko, martxoaren 9an, 17:00etan, San Agustin Kultur Etxean ekitaldi bat egingo da. Bertan, María Gorosarrirekin solasaldia izango da frankismoan emakumeek jasandako zigorrei buruz. Ondoren, "Prohibido recordar" dokumentala proiektatuko da, Saturrarango espetxearen historia lantzen duena.

Ekitaldi hauek tokiko hainbat elkartek eta berdintasunaren eta memoria historikoaren alde lan egiten duten beste kolektibo batzuek antolatu dituzte: Mendaroko Tratu Onen Aldeko Taldeak, Diversas, Arno Guraso Elkarateak, Mendaroko Udalarekin batera.

Mendaroko Udalak herritar guztiak jarduera hauetan parte hartzera gonbidatzen ditu, gogoeta egiteko eta gizarte bidezko eta berdinzaleago bat lortzen jarraitzeko.



Argazkia:Barren

PR moduan homologatutako Kilimon Traileko bi mendi ibilbideak erabiltzeko prest daude dagoeneko

Mendaroko Udalak 19.872,81 euroko (BEZa barne) aurrekontua bideratu du proiektu hau gauzatzeko, eta Kilimon Traileko bi ibilbideak Ibilbide Labur (PR) bezala egokitzeke

Duela urte batzuk sortu zitzairen Kilimon Trail mendi lasterketa antolatzen duten Mendaroko Txirrindularitza Elkarteko eta Lizarpe Mendi Klubeko kideei lasterketa bidea atontzeko eta PR mendi ibilbide moduan seinalizatzeko eta homologatzeko ideia. Modu honetan, ibilbidea urte osoan zehar edozeinek erabiltzeko moduan jarri ahal izango zen, eta ibilbidearen mantenimendua sistematizatu.

Bi ibilbideen balizai lanak egin (13 baliza jarri dira bi ibilbideetan), 12 poste eta 33 gezi diseinatu eta kokatu, hasierako panela diseinatu eta kokatu, ibilbidea homologatu eta ibilbidea desbrozatu eta egokitu behar izan dira azken hilabeteetan. Gipuzkoako Mendi Federazioak burutu ditu lan hauek Kilimon Trailekoen eta Udalaren laguntzarekin.

Berezitasun bezala, Garagartzako eliza atzealdetik Santakrutz aldera doan harrizko mailaz osatutako aintzinako bidexka desbrozatzear gain, hor falta ziren harrizko mailen lekuetan berriak jarri eta lurjausi eta basolanekin hondatuta zeuden lekuak egokitzeke ere ahalegina egin da.

Hasierako panelari dagokionez, Herriko Enparantzan jartzea hobetsi da, ibilbidea herriaren erditik abiaraztea, batez ere, ibilbidea egitera datozen bisitariak herriko erdigunera erakartzeko garrantzitsua izan daitekeela pentsatuta. Frontoiaren atzeko berdegunea aukeratu da hasierako panela jartzeko leku egokitzat. Horretarako, lehenbizi, leku horretan zegoen pantaila elektronikoa desmuntatu behar izan da, panelari trabarik egin ez diezaion.

Enez Ezenarro alkateak adierazi duenez “pantaila elektronikoa berriz martxan jartzeko asmotan” dabilta, “baina horretarako kokapen egokiena zein den erabaki” behar dute lehenbizi.

Ezenaroren arabera “gubernuan sartu ginenetik buruan izan dugu ibilbide batzuk diseinatu, seinaleztatu eta garbitzea. Hau da lehenbizikoa zentzu horretan, baina aurrerantzean oinezko beste ibilbide batzuk egokitzea eta mantentzea da gure asmoa”. Bere hitzetan “ezaguna da, gaur egun, kirolak eta ariketa fisikoak edozein adinetako herritarrentzat daukan garrantzia, bereziki, osasunari eta aisialdiari lotuta. Oinezko ibilbideak, bai herri barrukoak eta bai mendi inguruetakoak, funtzio hori betetzen dute, alde batetik. Baina ez da hori betetzen duten funtzio bakarra. Mendaroko natur eta kultur ondarea ezagutarazi eta babesteko ere funtsezko azpiegiturak direla uste dugu. Eta gainera dimentsio ekonomiko bat ere badaukala pentsatzen dugu, balio handiko natur eta kultur ondare bati lotutako turismo jasangarri bat erakartzeko gaitasuna daukan heinean. Gauza txikia ematen du baina guk garrantzia handia ematen diogu”.

Ibilbide hauek jadanik jendeak erabiltzeko moduan daude eta Ezenarrok hala egitera bultzatu nahi ditu herritarrak. Epe laburrean udaleko web orrian “ibilbide hauentzat txoko bat ere jarri” nahi dutela adierazi du Ezenarrok, edozeinek modu erraz batean eskuragarri izan dezan ibilbide hauen inguruko informazioa.

Proiektu hau egikaritzeko hainbeste lan egin duten Kilimon Traileko lagunei Udalaren partetik eskerrik beroenak eman nahi izan dizkie alkateak eta, amaitzeko, baita erabiltzaileei azken eskakizun bat luzatu ere; izan ere, “ibilbide hauek landaguneko inguruneetatik igarotzen direla jakinik, baserri munduarekiko begirune osoz jokatzeko ezinbestekoa delako, kaletar eta baserritarren artean bizikidetzan on bat izatea eskatzen dugu. Askotan, kaletarrok, ezezagutzagatik agian, ez gara ohartzen mendian gure jokaera desegokiak baserritarren sor ditzaketan arazoak zenbaterainokoak izan daitezkeen eta horrelakorik ezin da onartu”.



Padel eta frontoiko erreserbak eta ordainketak udaleko web orriaren bitartez egiteko sistema martxan jarri nahi du Udalak

Funtzionatzeko modu hau martxan jarri aurretik Udalak beharrezko ikusi zuen bi instalazio hauen erabilera arautzeko ordenantza bat egitea

Frontoiaren eta padel pistaren erabilera erreserbatu, ordainketa egin eta sarrerako giltzen kudeaketa Jubilatuen tabernaren bitartez egin izan du Udalak azken urteetan, tabernaren egutegi eta ordutegiak erabiltzaileentzat Udal bulegoek baino malgutasun eta erosotasun handiagoa eskaintzen zutela ulertuta.

Orain, ordea, malgutasun eta erosotasun horretan beste urrats bat ematea erabaki du Udalak herritarren hainbat eskaera kontuan hartuz, eta horretarako, batetik, bi ekipamendu hauetan sarrera kontrolerako zerraila elektronikoak instalatuko ditu, eta bestetik, zerraila hauekin integratutako software aplikazio bat jarriko da Udalaren web orrian erreserbak eta ordainketak egiteko. Modu honetan norbaitek bi instalazio hauetakoren batean egun eta ordu jakin baterako ordainketa egin eta erreserba burutzen duenean, telefono mugikorrera kode bat iritsiko zaio horren bitartez erreserbatuta daukan denbora tartean dagokion instalazioko atea ireki ahal izateko. Telefono mugikor egokirik ez dutenek, Udaletxeko sarreran jarritako eguneratze aparailu baten bidez eguneratu ahal izango den txartel bat lortzeko modua izango dute instalazio hauetako atea irekitzeko. Mendaroko Gimnasioa arduratuko da kudeaketa guztiaz.

Parte hartze prozesu bat abiatu zen lehendabizi, interesa zeukan edonork padel eta frontoiaren erabileraren inguruan ekarpenak egin zitzaizkion. 14 lagunen ekarpenak jaso ziren eta ahal izan den neurrian, ekarpen horietan oinarrituta idatzi zen pasa den otsailaren 28ko Udalbatzak ahobatez onartu zuen ordenantza. Ordenantza osorik web

orrian ikusgai dagoen arren honakoak dira bertan jasotzen diren erreserba egitearen inguruko neurriak:

- 14 urtetik gorakoek erreserbatu ditzakete padel pista eta frontoia. Adin txikiagokoen kasuan adin nagusiko norbaiten bitartez egin beharko dute erreserba eta hau izango da instalazioak egoki erabiltzearen arduraduna
- Egunean ordu bat edo bi erreserbatu ahal izango du erabiltzaile bakoitzak. Eta astean gehienez 3 egunetan.
- Astebetera arteko orduak erreserbatu ahal izango dira gehienez.
- Erabilera ordutegia: igandetik ostegunera 9:00-21:00 eta ostiral eta larunbatetan 9:00-22:00.
- 48 ordu falta diren arte erreserba bertan behera utziz gero dirua bueltatuko da. Hortik aurrera ez.
- Erreserba ordua amaitutakoan gauzak jaso eta pista utzi beharko da.
- Mendaroko Udalak antolatu edo babestutako ekintzek lehentasuna izango dute instalazio horietan beste erabilera batzuekiko.

Ordaindu beharreko kopuruari dagokionez, urriko Udalbatzan onartutako prezio publikoa aplikatuko da: orduko 10 euro. Azken urteetan pandemia zela eta ezarritako prezioak lehengoratzea erabaki du Udalak honela.

Padelerako eta Frontoirako ez ezik zerraila elektronikoko eta hauekin integratutako erreserba eta ordainketarako softwareari funtzionalitate gehiago ere ikusten dizkio Udalak eta aurrerantzean, poliki-poliki, hauen erabilgarritasuna beste zerbitzu batzuetara zabaltzea aurreikusten du. Esate baterako, kultur ekitaldietarako sarreren kudeaketa egiteko edo Udalak norbanako edo elkarteek erabiltzeko izan ditzakeen gela edo materialen erreserba eta kudeaketa egokia egiteko erabili ahal izango direla aurreikusten du.

Edozein kasutan, Udala jakitun da arrakala digitala dela eta kudeaketarako era honetako teknologien ezarpenak kolektibo ezberdinen arteko ezberdintasunak areagotzeko balio dezakeela batzuetan. Hori dela eta, egin daitezkeen erabilerak banan-banan aztertzeko asmoa erakutsi du, era horretako arazoak antzematerakoan, beharrezko neurri zuzentzaileak hartzeko, horrelako arrakalarik ematea saihestuz.



Mendarok harrera protokolo bat diseinatuko du gurera datozen bizilagun berrien integrazioa erraztu eta bizikidetza hobetzeko

Aurrerapauso garrantzitsua eman nahi du gure herrira bizitzera datozen bizilagun berrientzako harrera protokoloa diseinatuz eta martxan jarritz

Mendaroko Udalak Emun aholkularitzaren gidaritzapean bultzatutako proiektu honen helburua herrira bizitzera datozen pertsonei harrera hobe egin eta orientazioa eskaintzea da, gure herria hobeto ezagutu eta bertan integratzeko baliabideak eskainiz.

Protokolo honen garapena bi fase nagusitan banatzen da: lehenik, harrera instituzionalari dagokion parte landuko da, langileentzako prestakuntza eskainiz eta baliabideen gida bat sortuz; eta ondoren, harrera integralari dagokiona, herriko eragile desberdinen parte hartzea eskatuko duena eta bizilagun berrien babes-sarea osatzeko eta herriko bizitzan beraien integrazioa errazteko.

Helburu nagusia Mendaroko bizikidetza indartzea da, jatorria edozein dela ere, pertsona guztiek komunitatearen parte sentitzeko aukera izan dezaten. Horretarako, kultura-aniztasuna, hizkuntza, genero-berdintasuna eta udal zerbitzuetarako irisgarritasuna bezalako alderdi garrantzitsuak kontuan hartuko dira.

Proiektua 2025ean garatuko da, bertako eragileen parte-hartzearekin, prestakuntza-saioekin eta ongi etorri ekitaldi batekin. Gainera, protokoloa etengabe hobetzeko ebaluazio-sistema bat ere ezarriko da.

Ekimen honekin, Mendarok elkarlan eta elkarrekikotasunean oinarritutako harrera eredua sustatu nahi du, herriko kohesio soziala indartuz.



Gym Berdea, osasuna eta trantsizio ekologikoa sustatzeko ekimen berritzailea

Mendaron garatuko da, 2025eko otsailaren 11tik azaroaren 18ra, 8 hilabete iraungo du, saioak asteroko maiztasuna izango dute eta interesa duten guztiei osasun eta natura proiektu kolektibo batean parte hartzeko aukera eskainiko die

Proiektuak hainbat erakunderen laguntza jasotzen du, hala nola Eusko Jaurlaritzako Gizarte Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren Sailarena, Eusko Jaurlaritzako Osasun Publikoaren Zuzendariordetzarena, eta mankomunitate batzuen, besteak beste.

Gym Berdea proiektu berritzaile bat da, osasun integralaren sustapena helburu duena, fisiko, emozional, eta espiritual dimentsioetatik abiatuta, aldi berean, lorategien, baratzen eta basoen trantsizio ekologikoan lan eginez. Osasuna sustatzeko eta ingurumen-krisiari aurre egiteko gero eta behar handiagoa dagoen testuinguruan sortu da Gym Berdea, pertsonen eta komunitatearen ongizatea hobetzeko aukera osasungarri eta iraunkor bat eskainiz.

2016tik, Gym Berdea Bizkaiko hainbat udalerritan garatu da, Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin. Proiektu hau kanpoan, naturarekin harremanetan garatzen da, udalerraren espazio berdeetan, eta horrela, osasuna eta bizitza komunitarioa hobetzeko jarduerak eskaintzen dira. Lorategietan eta basoetan egiten diren esku-hartzeen bidez, parte-hartzaileek beren ingurunea edertzeko eta trantsizio ekologikoa sustatzeko aukera dute, flora eta fauna autoktonoak babestuz eta espazio berdeetan produktu kimikoak saihestuz.

Jarduera hau 16 eta 85 urte bitarteko pertsona guztiei zuzenduta dago, bereziki 60 urtetik gorako pertsonen, adinekoen aktibitatearen sustapena bilatuz, baita gizartearen baztertzeko arriskuan dauden pertsonen, beren bizitza hobetzeko edo adiskidetasun harremanak sendotzeko interesa duten gazteei ere. *Gym Berdea Eskolan* markoan, proiektua 2 eta 12 urte bitarteko ikasleei ere iristen zaie, hauei landareekin eta lurrarekin lan egiteko jarduera ekologikoak ezagutzen erakutsiz.

Gym Berdea saio bakoitza esku-hartzeen inguruko azalpen teoriko batekin hasten da, ondoren aerobikaren ariketa bat egiten da eta hautatutako espazio berdean lana egiten da. Jarduerak ariketa fisikoa, naturaren eta ingurumenaren zaintzaren inguruko

ikaskuntza teorikoa eta harreman pertsonal positiboak eta ongizate emozional eta espiritualaren sustapena uztartzen ditu. Horrek guztiak parte-hartzaileei osasun-ohiturak berreskuratzeko edo hobetzeko eta proiektu kolektiboaren bidez helburu komun bat lortzeko aukera ematen die.

Proiektuak oso harrera ona izan du parte-hartzaileengan, bereziki 50 eta 65 urte bitarteko pertsonengan, eta haiek lortutako onura fisikoak, emozionalak eta sozialak nabarmendu dituzte. Programa honek belaunaldien arteko lotura indartu du, kultura-trukea eta lan komunitarioa sustatuz.

Ziklo bakoitza amaitzeko, balorazio pertsonalak egingo dira, parte-hartzaileen beharretara egokitzeko eta jarduerak hobetzeko. Balorazio honekin, Gym Berdea osasuna, komunitatea eta ingurumenaren zaintza sustatzeko aukera integrala bilakatu da.



Txatxilipurdi elkarteak bideratuta Mendaroko aisialdi hezitzailea berpizteko helburua duen prozesua martxan jarri da

Mendaron, herriko haur eta nerabeekin garatuko den aisialdi eskaintza eta herriko ekipamenduak kudeatu ditzakeen aisialdi elkarte edo eragile bat eratzeko prozesua garatzea da helburua

Udalari Herrian aisialdi hezitzailean lan egingo duen eragile bat izatea estrategikoa iruditzen zaio, Herri Hezitzailearen baitan izan dezakeen garrantziagatik, Mendaroko biztanleen atxikimenduan bidea egiteko eta herriko aisialdiko ekipamenduak herriko eragile batek kudeatzeko.

Ekimen hau gauzatze aldera “Herriko haur eta nerabeekin aisialdian eragin nahi? Berpiztuko dugu Trixixapo?” gazteekin topaketa antolatu zen Udaletxeko Arno aretoan otsailaren 10, 17 eta 24an, arratsaldeko 17:30etatik 20:00etara.

Mendaro, Oinherri Herri Hezitzaileen Sareko kide izanik, marko horretatik abiatu da, Aisialdi hezitzailea ere, filosofia lurreratzeko estrategia moduan ulertuz.

Prozesuak 3 fase izango ditu: lehenengo fasearen helburua herrian egon daitezkeen helduleku posibleak (euskara elkarteak, guraso elkarteak, gazte hezitzaile posibleak...) erronkaren aurrean kokatu eta duten jarrera aztertzea izan da, aurrera begira lurzoru komun eta egonkor bat izate aldera. Fase honetan 3 bilera izan dira: lehenengoan, Udal ordezkari eta teknikariaren artekoan, proposamena azaldu, kontrastatu eta formula ezberdinak proposatu dira; bigarrenan, gazte hezitzaile eta teknikariaren artekoan, Aisialdi Hezitzailearen kokapena, aukerak eta erronkaren aurkezpena egin da; hirugarrenean, azkenik, egitasmoa juridikoki kokatzeko aukerak aztertu dira.

Bigarren fasean, haur eta nerabeekin batera arituko diren hezitzaileek lan hezitzailea egiteko, hauen ahalduntzerako 3 orduko hiru formazio eta hausnarketa saio burutzea proposatzen da. Bertan, Aisialdi Hezitzaileaz, honek herri Hezitzaileen filosofian duen garrantziaz eta Mendaron egin daitezkeen hausnartuko da.

Hirugarren eta azken fasean, aisialdiko elkarte edo eragile berriko kideei, Mendaroko aisialdiko zerbitzu finkoak kudeatzeko garatu beharreko proiektuan bidelaguntza eta aholkularitza eskainiko zaie.

Mendaron bizi!
Mendaron erosi!
 Otsailaren 22tik martxoaren 16ra
 Del 22 de febrero al 16 de marzo

20
30€

ORDAINDU 20€ ETA
 KONTSUMITU 30€
 Erosi zure bonoa!

Paga 20€ y consume 30€
 ¡Compra tu bono!

Parte hartzaileak/Participantes:

1. ANTTON
2. ART FRUIT
3. COVIRAN
4. FARMAZIA
5. GALLE-TIAK
6. LEIRE
7. LUTXIMAK
8. MORROSKILO
9. OLATZ
10. ROTETA
11. SONIA
12. TXOKOLATEAK



Mendaroko merkataritzari bultzada "Mendaron bizi! Mendaron erosi!" kanpainari esker

Mendaroko Udalak "Mendaron bizi! Mendaron erosi!" kanpaina jarri du martxan, herriko merkataritza sustatzeko ekimena, 2025eko otsailaren 22tik martxoaren 16ra indarrean egongo dena

Ekintza hau Udal Gobernu Planaren (2024-2027) parte da, Mendaroko bizi-kalitatea hobetzeko 75 neurri jasotzen dituen egitasmoaren baitan.

Epe horretan, herritarrek 30 euroko erosketak egiteko bonuak eskuratu ahal izango dituzte, 20 euro ordainduta soilik, hau da, %33ko deskontu zuzena izango dute erosketetan. Bonuak kanpainari atxikitako saltokietan eskuratu ahal izango dira, eta aukera paregabea da tokiko merkataritza sustatzeko, aurrezpen nabarmena lortuz aldi berean.

Guztira, 12 saltoki batu dira ekimen honetara, produktu eta zerbitzu askotarikoak eskainiz. Parte hartzen duten establezimenduak hauek dira: Antton, Art Fruit, Coviran, Farmazia, Galle-Tiak, Leire, Lutximak, Morroskilo, Olatz, Roteta, Sonia eta Txokolateak.

"Mendaron bizi! Mendaron erosi!" kanpainak helburu nagusi hauek ditu: kontsumo lokala sustatzea, herritarrei erosketak bertako dendetan egitea bultzatuz eta, horrela, tokiko ekonomia sendotuz; merkataritza txikiari laguntzea, bertako saltokiei euren salmentak eta ikusgarritasuna handitzeko plataforma bat eskainiz; eta komunitatea indartzea, Mendaroko bizilagunen eta merkataritza txikiaren arteko harremanak sendotuz, elkarrekiko konfiantza eta lankidetzak sustatuz.

Promozio honetaz baliatu nahi dutenek aurrez aipatutako saltokietara jo dezakete bonuak eskuratzeko. Gomendagarria da herritarrek lehenbailehen aprobetxatzea aukera hau, kanpainak iraupen mugatua baitu.

Mendaroko Udalak herritar guztiak kanpaina honetan parte hartzera animatzen ditu, herriko saltokietan erosketak eginez eta, horrela, udalerriko ekonomia eta komunitatea indartzen lagunduz.

Egin nirekin ere euskaraz!

Euskara ukatzen didazunean, bertakoa izatea eta sentitzea ere ukatzen didazu, nahi gabe izan arren.

Euskaraz hitz egiten didazunean, herrien eta kulturen arteko zubia sendotzen ari zara, euskaratik.

Nire azalaren kolorea azalokoa besterik ez da. Euskarari esker, zu bezain euskalduna naiz. Beraz, egin nirekin ere euskaraz!

Kanpainaren informazioa
labur.eus/nirekinEREbai

Kanpainaren kartela
labur.eus/kartelakEREbai

Kanpainaren bideoa
labur.eus/bideoakEREbai

Eduki hau beste hizkuntza batzuetan. Gazteleraz, arabieraz eta urduz:

ES CASTELLANO عرب اردو

Sustraiak Mexikon dituen eta lehen hizkuntza **gaztelera** duen **euskalduna** da Michele.

Sustraiak Senegalen dituen eta lehen hizkuntza **wolofera** duen **euskalduna** da Guina.

Guina Lodiagne. Kadiou Salidou deinde Lektio.

'Egin nirekin ere euskaraz!' kanpainari ekin dio UEMAK

'Egin nirekin ere euskaraz!' kanpainari ekin dio UEMAK, beste herrialdeetatik etorri eta ostalaritzan eta merkataritzan lanean ari diren euskaldunak ikusarazteko

Beste herrialdeetatik Euskal Herrira etorri, euskara ikasi, eta jendaurrean aritzen diren tabernariak, zerbitzariak eta dendariak dira kanpainaren oinarria, eta horiekin erdaraz hasten diren euskaldunen aurreiritziak gainditzea da helburua.

Euskarak kolore asko dituela eta herritar horiek guztiak euskaldunak direla nabarmendu nahi du kanpainak. Azalaren kolorea edota bizilagunen jatorria askotarikoa izan arren, euskaldunak dira Amin, Ansou, Narcisa, Rizwan, Keyla, Marcos, Maurizio, Guina, Jennifer, Daniel, Michele eta Valeria. Aljerian, Senegalen, Errumanian, Pakistanen, Brasilen, Bolivian, Sardinian, Uruguain, Mexikon eta Nikaraguan jaio dira. Arabiera, wolofera, errumaniera, urdua, portugesa, sardiniera edo gaztelera jaso dute etxean. Euskara, beraz, ez da beraien lehen hizkuntza, baina euskara ikasi dute, eta euskaraz aritzen dira bezeroekin.

Askotan, ordea, azalaren koloreagatik, aurreiritziengatik edota auskalo zergatik erdaraz hitz egiten diete gainerako herritarrek. Badakite, ordea, euskara dela zubirik ederrena, eta euskara ukatzen dieten bakoitzean zubia ere ukatzen dietela sentitzen dute. Kanpokoak direla esaten zaiela zeharka. Horregatik, beraiei ere euskaraz egitea nahi dute. Gustatzen zaielako, eta euskaldunak sentitzen direlako.



BOLETÍN MUNICIPAL

de Mendaro

Febrero de 2025



Índice

Mendaro conmemora el Día Internacional de la Mujer con diversas actividades.....4

El municipio de Mendaro ha organizado una serie de eventos con motivo del Día Internacional de la Mujer, que se celebrará el próximo 8 de marzo

Ya están listos para su uso los dos recorridos de Kilimon Trail homologados como PR.....5-6

El Ayuntamiento de Mendaro ha destinado un presupuesto de 19.872,81 euros (IVA incluido) para la ejecución de este proyecto, con el objetivo de adaptar dos recorridos de Kilimon Trail como Itinerarios de Pequeño Recorrido (PR)

El Ayuntamiento quiere poner en marcha un sistema de reserva y pago para el pádel y el frontón a través de su página web.....7-8

Antes de poner en funcionamiento este sistema, el Ayuntamiento consideró necesario elaborar una ordenanza para regular el uso de estas dos instalaciones

Mendaro diseñará un protocolo de acogida para facilitar la integración de los nuevos vecinos y mejorar la convivencia.....9

Se quiere dar un paso importante en la acogida de las personas que llegan a vivir al municipio, diseñando y poniendo en marcha un protocolo de acogida para los nuevos vecinos

Gym Berdea, una iniciativa innovadora para promover la salud y la transición ecológica.....10-11

Se desarrollará en Mendaro desde el 11 de febrero hasta el 18 de noviembre de 2025, con una duración de 8 meses. Las sesiones serán semanales y ofrecerán a todas las personas interesadas la oportunidad de participar en un proyecto colectivo de salud y naturaleza

Se pone en marcha un proceso para revitalizar el ocio educativo en Mendaro con la mediación de la asociación Txatxilipurdi.....12-13

Se ha iniciado en Mendaro un proceso cuyo objetivo es desarrollar una oferta de ocio para la infancia y la adolescencia del municipio, así como constituir una entidad o agente que pueda gestionar los equipamientos locales dedicados al ocio

Impulso al comercio de Mendaro con la campaña "Mendaron bizi! Mendaron erosi!"14-15

El Ayuntamiento de Mendaro ha lanzado la campaña "Mendaron bizi! Mendaron erosi!", una iniciativa destinada a promover las compras en el comercio local, que estará vigente del 22 de febrero al 16 de marzo de 2025

UEMA lanza la campaña "Egin nirekin ere euskaraz!".....16

UEMA ha puesto en marcha la campaña "Egin nirekin ere euskaraz!" con el objetivo de visibilizar a las personas euskaldunes que han llegado desde otros países y trabajan en el sector de la hostelería y el comercio



Mendaro conmemora el Día Internacional de la Mujer con diversas actividades

El municipio de Mendaro ha organizado una serie de eventos con motivo del Día Internacional de la Mujer, que se celebrará el próximo 8 de marzo

Las actividades, que se desarrollarán entre el 6 y el 9 de marzo, incluyen presentaciones de libros, teatro, coloquios y eventos infantiles, con el objetivo de visibilizar la lucha y resistencia de las mujeres a lo largo de la historia.

El programa dará inicio el 6 de marzo a las 19:00 en el Ayuntamiento con la presentación del libro "Sahara; herri bat erresistentzian" de la autora Kristina Berasain.

El 7 de marzo, los más pequeños podrán disfrutar de una "Ginkana" que comenzará a las 17:00 en la puerta del Ayuntamiento. Esta actividad está dirigida a niños y niñas de entre 7 y 12 años.

El 8 de marzo, fecha central de la conmemoración, habrá una concentración a las 12:00 frente al Ayuntamiento para reivindicar los derechos de las mujeres. Posteriormente, a las 18:30, el Centro Cultural San Agustín acogerá la obra de teatro "Mi tercer acto" de Txirene Produkzioak, que se representará en castellano con entrada gratuita.

Las actividades concluirán el 9 de marzo con un evento en el Centro Cultural San Agustín a las 17:00, que incluirá un coloquio con María Gorosarri sobre los castigos sufridos por las mujeres durante el franquismo. A continuación, se proyectará el documental "Prohibido recordar", que aborda la historia de la cárcel de Saturraran.

Los eventos están organizados por diversas asociaciones locales y otros colectivos que trabajan por la igualdad y la memoria histórica: Mendaroko Tratu Onen Aldeko Taldea, Diversas, la Asociación de Padres y Madres Arno, junto al Ayuntamiento de Mendaro.

Desde el Ayuntamiento de Mendaro se invita a toda la ciudadanía a participar en estas actividades para reflexionar y continuar avanzando hacia una sociedad más justa e igualitaria.



Foto:Barren

Ya están listos para su uso los dos recorridos de Kilimon Trail homologados como PR

El Ayuntamiento de Mendaro ha destinado un presupuesto de 19.872,81 euros (IVA incluido) para la ejecución de este proyecto, con el objetivo de adaptar dos recorridos de Kilimon Trail como Itinerarios de Pequeño Recorrido (PR)

Hace unos años, los miembros de Mendaroko Txirrindularitza Elkartea y de Lizarpe Mendi Kluba, organizadores de la carrera de montaña Kilimon Trail, comenzaron a plantearse la idea de acondicionar el recorrido de la carrera y señalarlo como PR homologado. De esta manera, el itinerario quedaría disponible para su uso durante todo el año y su mantenimiento estaría sistematizado.

En los últimos meses, se han llevado a cabo las labores de señalización de los dos recorridos (incluyendo la instalación de 13 balizas), el diseño y colocación de 12 postes y 33 flechas direccionales, así como el diseño y ubicación de un panel informativo de inicio de ruta. Además, se ha llevado a cabo la homologación del recorrido y tareas de limpieza y acondicionamiento. Estos trabajos han sido realizados por la Federación Guipuzcoana de Montaña, con el apoyo del Ayuntamiento y de Kilimon Trail.

Entre las actuaciones realizadas, destaca la recuperación de un antiguo sendero empedrado que va desde la parte trasera de la iglesia de Garagarza hasta Santakrutz. Se han colocado nuevas piedras en los tramos donde faltaban escalones y se han reparado zonas deterioradas por desprendimientos y trabajos forestales.

Se ha decidido colocar el panel de inicio de ruta en la Plaza del Pueblo, con la intención de que los visitantes que vengan a recorrer los itinerarios se acerquen al centro del municipio. Para ello, se ha elegido el espacio verde detrás del frontón como lugar idóneo. Como parte de este proceso, ha sido necesario desmontar la pantalla electrónica que se encontraba en la zona, para evitar que obstaculizara la visibilidad del panel.


Enez Ezenarro, alcalde de Mendaro, ha señalado que el Ayuntamiento tiene la intención de volver a poner en funcionamiento la pantalla electrónica, pero antes deben determinar cuál es la ubicación más adecuada para reinstalarla.

Según Ezenarro, desde que asumieron el gobierno municipal han tenido en mente el diseño, señalización y acondicionamiento de rutas de senderismo. Este es el primer recorrido dentro de ese plan, pero su intención es seguir adaptando y manteniendo más itinerarios peatonales en el futuro.

El alcalde ha destacado la importancia del deporte y la actividad física para todas las edades, especialmente en términos de salud y ocio. Además, ha subrayado que estas rutas no solo cumplen una función recreativa, sino que también son infraestructuras clave para dar a conocer y proteger el patrimonio natural y cultural de Mendaro. Asimismo, cree que este proyecto tiene una dimensión económica, ya que el patrimonio natural y cultural de la zona puede servir para impulsar un turismo sostenible.

Estos itinerarios ya están abiertos al público y Ezenarro ha animado a los vecinos a hacer uso de ellos. Además, ha anunciado que el Ayuntamiento quiere crear un espacio específico en su página web para ofrecer información detallada sobre estas rutas y facilitar su acceso a toda la ciudadanía.

Por último, el alcalde ha querido expresar su agradecimiento a todas las personas que han trabajado en la ejecución de este proyecto, especialmente al equipo de Kilimon Trail. También ha hecho un llamado al respeto del entorno rural, recordando que estas rutas atraviesan zonas de pasto y terrenos de caseríos, por lo que es fundamental mantener una convivencia adecuada entre habitantes urbanos y rurales. Ha señalado que, en ocasiones, los visitantes desconocen el impacto negativo que ciertas conductas pueden generar en la vida de los baserritarras (agricultores y ganaderos), y ha insistido en la necesidad de actuar con responsabilidad en la montaña.



El Ayuntamiento quiere poner en marcha un sistema de reserva y pago para el pádel y el frontón a través de su página web

Antes de poner en funcionamiento este sistema, el Ayuntamiento consideró necesario elaborar una ordenanza para regular el uso de estas dos instalaciones

En los últimos años, la reserva de la pista de pádel y el frontón, así como el pago y la gestión de llaves de acceso, se ha realizado a través del bar de los jubilados, ya que su horario y calendario ofrecían una mayor flexibilidad y comodidad a los usuarios en comparación con las oficinas municipales.

Ahora, teniendo en cuenta varias peticiones ciudadanas, el Ayuntamiento ha decidido dar un paso más en esta flexibilidad y comodidad. Para ello, por un lado, se instalarán cerraduras electrónicas de control de acceso en ambas instalaciones y, por otro, se implementará en la página web del Ayuntamiento una aplicación de software integrada con estas cerraduras para gestionar las reservas y pagos. De este modo, cuando una persona realice una reserva y el pago correspondiente para un día y hora determinados en una de estas instalaciones, recibirá en su teléfono móvil un código que le permitirá abrir la puerta de la instalación durante el periodo reservado. Para quienes no dispongan de un teléfono móvil adecuado, se habilitará un dispositivo de actualización en la entrada del Ayuntamiento donde podrán obtener una tarjeta que les permitirá abrir las puertas de las instalaciones. La gestión de todo el sistema correrá a cargo del gimnasio de Mendaro.

En primer lugar, se puso en marcha un proceso participativo para que cualquier persona interesada pudiera hacer aportaciones sobre el uso de la pista de pádel y el frontón. Se recogieron las aportaciones de 14 personas y, en la medida de lo posible, se incorporaron a la ordenanza que fue aprobada por unanimidad en el Pleno municipal

del pasado 28 de febrero. Aunque la ordenanza completa está disponible en la página web del Ayuntamiento, estas son algunas de las normas establecidas para la realización de reservas:

- Las pistas de pádel y el frontón podrán ser reservadas por personas mayores de 14 años. En el caso de menores de esta edad, la reserva deberá hacerse a través de un adulto, quien será el responsable de su correcto uso.
- Cada usuario podrá reservar una o dos horas al día, con un máximo de tres días por semana.
- Las reservas podrán realizarse con una antelación máxima de una semana.
- Horario de uso: de domingo a jueves, de 9:00 a 21:00; viernes y sábados, de 9:00 a 22:00.
- Si la reserva se cancela con más de 48 horas de antelación, se reembolsará el dinero; en caso contrario, no habrá devolución.
- Al finalizar la reserva, se deberá recoger el material y abandonar la pista.
- Las actividades organizadas o patrocinadas por el Ayuntamiento de Mendaro tendrán prioridad sobre otros usos en estas instalaciones.

En cuanto a las tarifas, se aplicará el precio público aprobado en el Pleno municipal de octubre: 10 euros por hora. Con esta medida, el Ayuntamiento ha decidido restablecer los precios que se aplicaban antes de la pandemia.

Además de su uso para la pista de pádel y el frontón, el Ayuntamiento también prevé ampliar progresivamente las funcionalidades del sistema de cerraduras electrónicas y la aplicación de reservas y pagos a otros servicios. Por ejemplo, se contempla su uso para la gestión de entradas a eventos culturales o la reserva y correcta gestión de salas y materiales municipales disponibles para uso de particulares o asociaciones.

En cualquier caso, el Ayuntamiento es consciente de que la brecha digital puede generar desigualdades entre distintos colectivos en la gestión de estos sistemas tecnológicos. Por ello, ha expresado su intención de analizar individualmente cada uso para, en caso de detectar posibles problemas de acceso, tomar las medidas correctoras necesarias y evitar que esta brecha digital genere desigualdades.



Mendaro diseñará un protocolo de acogida para facilitar la integración de los nuevos vecinos y mejorar la convivencia

Se quiere dar un paso importante en la acogida de las personas que llegan a vivir al municipio, diseñando y poniendo en marcha un protocolo de acogida para los nuevos vecinos

Este proyecto, impulsado por el Ayuntamiento de Mendaro bajo la dirección de la consultora Emun, tiene como objetivo ofrecer una mejor bienvenida y orientación a quienes llegan al pueblo, proporcionándoles recursos que les ayuden a conocer mejor la localidad y facilitar su integración.

El desarrollo de este protocolo se dividirá en dos fases principales: en primer lugar, se trabajará en la acogida institucional, ofreciendo formación al personal municipal y elaborando una guía de recursos. Posteriormente, se abordará la acogida integral, que contará con la participación de distintos agentes del municipio y buscará crear una red de apoyo para los nuevos vecinos, facilitando su integración en la vida local.

El objetivo principal es fortalecer la convivencia en Mendaro, garantizando que todas las personas, independientemente de su origen, tengan la oportunidad de sentirse parte de la comunidad. Para ello, se tendrán en cuenta aspectos clave como la diversidad cultural, la lengua, la igualdad de género y la accesibilidad a los servicios municipales.

El proyecto se llevará a cabo en 2025, con la participación de agentes locales, sesiones de formación y un acto de bienvenida. Además, se implementará un sistema de evaluación para la mejora continua del protocolo.

Con esta iniciativa, Mendaro quiere fomentar un modelo de acogida basado en la colaboración y la reciprocidad, reforzando así la cohesión social en el municipio.



Gym Berdea, una iniciativa innovadora para promover la salud y la transición ecológica

Se desarrollará en Mendara desde el 11 de febrero hasta el 18 de noviembre de 2025, con una duración de 8 meses. Las sesiones serán semanales y ofrecerán a todas las personas interesadas la oportunidad de participar en un proyecto colectivo de salud y naturaleza

El proyecto cuenta con el apoyo de diversas entidades, entre ellas el Departamento de Bienestar Social, Juventud y Reto Demográfico del Gobierno Vasco, la Subdirección de Salud Pública del Gobierno Vasco y varias mancomunidades.

Gym Berdea es un proyecto innovador cuyo objetivo es la promoción de la salud integral, abarcando las dimensiones física, emocional y espiritual, mientras se trabaja en la transición ecológica de jardines, huertos y bosques. Surge en un contexto en el que la necesidad de fomentar la salud y hacer frente a la crisis medioambiental es cada vez mayor, ofreciendo una opción saludable y sostenible para mejorar el bienestar de las personas y la comunidad.

Desde 2016, Gym Berdea se ha desarrollado en varios municipios de Bizkaia con el apoyo del Gobierno Vasco. Este proyecto se lleva a cabo al aire libre, en contacto con la naturaleza, en los espacios verdes municipales, ofreciendo actividades que mejoran la salud y la vida comunitaria. A través de las intervenciones en jardines y bosques, los participantes tienen la oportunidad de embellecer su entorno y fomentar la transición ecológica, protegiendo la flora y fauna autóctonas y evitando el uso de productos químicos en los espacios verdes.

Esta actividad está dirigida a personas de entre 16 y 85 años, especialmente a mayores de 60 años, con el objetivo de fomentar la actividad en la tercera edad. También está orientada a personas en riesgo de exclusión social, jóvenes interesados en mejorar su calidad de vida o fortalecer sus relaciones de amistad. Dentro del marco Gym Berdea Eskolan, el proyecto también llega a escolares de entre 2 y 12 años, enseñándoles actividades ecológicas para trabajar con plantas y la tierra.

Cada sesión de Gym Berdea comienza con una explicación teórica sobre las intervenciones a realizar, seguida de un ejercicio aeróbico y, posteriormente, trabajo en el espacio verde seleccionado. Las actividades combinan ejercicio físico, aprendizaje teórico sobre el cuidado de

la naturaleza y el medioambiente, y la promoción de relaciones personales positivas y del bienestar emocional y espiritual. Todo ello permite a los participantes recuperar o mejorar hábitos saludables y alcanzar un objetivo común a través de un proyecto colectivo.

El proyecto ha tenido una excelente acogida entre los participantes, especialmente en el grupo de edad de 50 a 65 años, quienes han destacado los beneficios físicos, emocionales y sociales obtenidos. Este programa ha reforzado el vínculo intergeneracional, fomentando el intercambio cultural y el trabajo comunitario.

Al finalizar cada ciclo, se realizarán valoraciones personales para adaptar el programa a las necesidades de los participantes y mejorar las actividades. Gracias a esta evaluación, Gym Berdea se ha convertido en una iniciativa integral para la promoción de la salud, la comunidad y el cuidado del medioambiente.



Se pone en marcha un proceso para revitalizar el ocio educativo en Mendaro con la mediación de la asociación Txatxilipurdi

Se ha iniciado en Mendaro un proceso cuyo objetivo es desarrollar una oferta de ocio para la infancia y la adolescencia del municipio, así como constituir una entidad o agente que pueda gestionar los equipamientos locales dedicados al ocio

El Ayuntamiento considera estratégico contar con un agente que trabaje el ocio educativo en el municipio, tanto por la importancia que este puede tener dentro del marco de Pueblo Educador como por su papel en la adhesión de la población de Mendaro a esta iniciativa y en la gestión de los equipamientos de ocio locales por parte de un agente del propio municipio.

Para llevar a cabo esta iniciativa, se organizó un encuentro bajo el lema “¿Quieres incidir en el ocio de la infancia y adolescencia del pueblo? ¿Revitalizamos Trikixapo?”, que tuvo lugar en la sala Arno del Ayuntamiento los días 10, 17 y 24 de febrero, de 17:30 a 20:00 de la tarde.

Mendaro, como miembro de la Red de Pueblos Educadores Oinherri, ha iniciado este proceso dentro de dicho marco, entendiendo también el ocio educativo como una estrategia para esta filosofía.

El proceso constará de tres fases y actualmente se encuentra en la segunda. En la primera fase, el objetivo fue analizar la posición de posibles agentes implicados en el municipio (asociación de euskera, asociación de madres y padres, posibles educadores juveniles, etc.) ante el reto planteado, con el fin de establecer una base común y estable de cara al futuro. En esta fase se llevaron a cabo tres reuniones: en la primera, entre representantes y técnicos municipales, se presentó y contrastó la propuesta, además de proponer distintas fórmulas; en la segunda, con educadores juveniles y técnicos, se abordó la ubicación del Ocio Educativo, sus oportunidades y el planteamiento del reto; finalmente, en la tercera reunión, se analizaron las opciones para encajar jurídicamente el proyecto.

En la segunda fase, se propone llevar a cabo tres sesiones de formación y reflexión de tres horas cada una dirigidas a los educadores que trabajarán con la infancia y la adolescencia. En estas sesiones, se reflexionará sobre el Ocio Educativo, su importancia

dentro de la filosofía de los Pueblos Educadores y las posibilidades de implementación en Mendaro.

En la tercera y última fase, se ofrecerá acompañamiento y asesoramiento a los miembros de la nueva entidad o agente de ocio en el desarrollo del proyecto que deberán gestionar los servicios de ocio establecidos en Mendaro.

**Mendaron bizi!
Mendaron erosi!**
Otsailaren 22tik martxoaren 16ra
Del 22 de febrero al 16 de marzo

**20
30€**

**ORDAINDU 20€ ETA
KONTSUMITU 30€
Erosi zure bonoa!**

**Paga 20€ y consume 30€
¡compra tu bono!**

Parte hartzaileak/Participantes:

1. ANTTON
2. ART FRUIT
3. COVIRAN
4. FARMAZIA
5. GALLE-TIAK
6. LEIRE
7. LUTXIMAK
8. MORROSKILO
9. OLATZ
10. ROTETA
11. SONIA
12. TXOKOLATEAK



Impulso al comercio de Mendaro con la campaña "Mendaron bizi! Mendaron erosi!"

El Ayuntamiento de Mendaro ha lanzado la campaña "Mendaron bizi! Mendaron erosi!", una iniciativa destinada a promover las compras en el comercio local, que estará vigente del 22 de febrero al 16 de marzo de 2025

Esta acción forma parte del compromiso del consistorio con el desarrollo económico y social del municipio, tal como se recoge en el Plan de Gobierno 2024-2027, que incluye 75 medidas para mejorar la calidad de vida en Mendaro.

Durante este período, los residentes podrán adquirir bonos de compra por valor de 30 euros abonando únicamente 20 euros, lo que supone un descuento directo del 33% en sus compras. Estos bonos están disponibles en los establecimientos adheridos a la campaña y representan una excelente oportunidad para apoyar al pequeño comercio local mientras se beneficia de ahorros significativos.

Un total de 12 comercios de Mendaro se han sumado a esta iniciativa, ofreciendo una amplia variedad de productos y servicios. Los establecimientos participantes son: Antton, Art Fruit, Coviran, Farmacia, Galle-Tiak, Leire, Lutximak, Morroskilo, Olatz, Roteta, Sonia eta Txokolateak.

La campaña "Mendaron bizi! Mendaron erosi!" tiene como principales objetivos fomentar el consumo local, incentivar a los vecinos a realizar sus compras en los comercios del municipio, fortaleciendo así la economía local; apoyar a los pequeños comerciantes, proporcionando a los negocios locales una plataforma para aumentar sus ventas y visibilidad; y crear comunidad, reforzando los lazos entre los habitantes de Mendaro y sus comerciantes, promoviendo un sentido de pertenencia y colaboración.

Los interesados en beneficiarse de esta promoción pueden dirigirse directamente a cualquiera de los establecimientos mencionados para adquirir sus bonos. Se recomienda a los vecinos aprovechar esta oportunidad lo antes posible, ya que la campaña tiene una duración limitada.

Desde el Ayuntamiento de Mendaro se anima a toda la ciudadanía a participar activamente en esta campaña, realizando sus compras en los comercios locales y contribuyendo así al fortalecimiento de la economía y la comunidad del municipio.

Egin nirekin ere euskaraz!

Euskara ukatzen didazunean, bertakoa izatea eta sentitzea ere ukatzen didazu, nahiz gabe izan arren.

Euskaraz hitz egiten didazunean, herrien eta kulturen arteko zubia sendotzen ari zara, euskaratik.

Nire azalaren kolorea azalekoa besterik ez da. Euskarari esker, zu bezain euskalduna naiz. Beraz, egin nirekin ere euskaraz!

Kanpainaren informazioa
labur.eus/nirekinEREbal

Kanpainaren kartela
labur.eus/kartelakEREbal

Kanpainaren bideoa
labur.eus/bideoaEREbal

Eduki hau beste hizkuntza batzuetan. Gaztelera, arabieraz eta urduz:

ES CASTELLANO
 عرب
 اردو

Sustraiak Senegalen dituen eta lehen hizkuntza **wolofera** duen euskalduna da **Guina**.

Michele Abrego, itzair jatorria **Askotia**.

Sustraiak **Mexikon** dituen eta lehen hizkuntza **gaztelera** duen euskalduna da **Michele**.

Guina Lediane, Khadim Salidou denda **Lekeitio**.

UEMA lanza la campaña "Egin nirekin ere euskaraz!"

UEMA ha puesto en marcha la campaña "Egin nirekin ere euskaraz!" con el objetivo de visibilizar a las personas euskaldunes que han llegado desde otros países y trabajan en el sector de la hostelería y el comercio

La campaña se centra en camareros, dependientes y comerciantes que han emigrado al País Vasco, han aprendido euskera y trabajan de cara al público, buscando romper los prejuicios de aquellos euskaldunes que se dirigen a ellos en castellano o en otras lenguas.

Se quiere destacar que el euskera tiene muchos colores y que todas estas personas también son euskaldunes, a pesar de que el color de su piel o su lugar de origen sean diversos. Amin, Ansou, Narcisa, Rizwan, Keyla, Marcos, Maurizio, Guina, Jennifer, Daniel, Michele y Valeria son euskaldunes. Nacieron en Argelia, Senegal, Rumanía, Pakistán, Brasil, Bolivia, Cerdeña, Uruguay, México y Nicaragua. En sus hogares han hablado árabe, wólof, rumano, urdu, portugués, sardo o castellano. El euskera, por tanto, no es su lengua materna, pero lo han aprendido y lo usan con sus clientes.

Sin embargo, a menudo las personas de su entorno les hablan en otros idiomas por el color de su piel, por prejuicios o por cualquier otra razón. Ellos saben que el euskera es el puente más hermoso para conectar con los demás y sienten que, cada vez que se les niega el euskera, también se les niega ese puente. Sienten que, de forma indirecta, se les sigue considerando "de fuera". Por eso, quieren que se les hable también en euskera: porque les gusta y porque se sienten euskaldunes.